

**2018ko Jarraipeneko Azken
Txostena eta 2019ko aurreikus-
penak**

2019ko apirila

**GIZARTERATZEKO IV.
PLANA
2017-2021**

Euskadi, herri inklusiboa

Euskadi, auzolana, bien común

ELUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta metodologia	3
1.1 Sarrera.....	3
1.2 Metodologia	3
1.3 Txostenaren egitura	6
1.4 Ondorio orokorrak	6
2. 1. ardatza: Enplegua eta Diru-sarreraren Bermea	9
2.1. Enplegua	9
2.1.1. Balioespen orokorra	9
2.1.2. Enpleguaren arloko jarraipenaren adierazleak	11
2.2. Diru-sarreraren Bermea	11
2.2.1. Balioespen Orokorra	11
2.2.2. Diru-sarreraren Bermearen arloko jarraipenaren adierazleak	13
3. 2. ardatza: Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Etxebizitza eta Hezkuntza	14
3.1. Gizarte Zerbitzuak	14
3.1.1. Balioespen orokorra	14
3.1.2. Gizarte Zerbitzuen arloko jarraipenaren adierazleak	17
3.2. Osasuna	17
3.2.1. Balioespen orokorra	17
3.2.2. Osasunaren arloko jarraipenaren adierazleak	19
3.3. Etxebizitza	20
3.3.1. Balioespen orokorra	20
3.3.2. Etxebizitzaren arloko jarraipenaren adierazleak	22
3.4. Hezkuntza	23
3.4.1. Balioespen orokorra	23
3.4.2. Hezkuntzaren arloko jarraipenaren adierazleak	25
4. 3. ardatza: Artikulazioa eta koordinazioa.....	25
4.1. Balioespen orokorra.....	25

A ERANSKINA. 2017-2021eko Gizarteratzeko Planeko jarduketaren jarraipena

B ERANSKINA. Testuinguru-adierazleak

1. SARRERA ETA METODOLOGIA

1.1. Sarrera

2018ko otsailaren 26an, Gizarteratzeko IV. Plana 2017-2021 egitasmoa onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak bultzatu eta Gizarteratzeko Erakundeen arteko Batzordeak gauzatu zuen egitasmoa. Batzorde horretako kideak dira, aipatutako sailaz gain, hiru foru-aldundiak eta EUDEL. Eguía Careaga Fundazioko SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekin kontratatu zuen Sailak III. Plana ebaluatzeko eta IV. Planaren diagnostikoa eta lanketa egiteko laguntza teknikoa. Erakunde horrek berak egin zuen III. Planaren *ex ante* ebaluazioa, eta gizarteratzeko aurreneko bi planen elaborazioa ere bai.

IV. Planak haren jarraipenarekin lotutako hainbat neurri aurreikusten ditu, oro har, EAEko gizarteratze-sistemaren gobernamentuarekin ere lotura dutenak. Ildo horretatik, Lantalde Tekniko-Zuzentzailea sortzea jasotzen du planak. Planaren bultzadaren eta jarraipen teknikoaren ardura duen Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak proposatuko ditu taldeko kide izango diren pertsonak.

Txosten honek orain arteko lanaren jarraipen-prozesuaren emaitza biltzen du. Txostenaren helburua da oinarritzko informazioa eskaintzea Planean jasotako jarduketaren garapen-mailaren inguruan, aurreratuenak dauden jarduketaren inguruan eta hasi ez direnen inguruan, Planak jaso bai baina behar bezala garatzen ari ez diren arloak edo neurriak zein diren atzematearren. Txostenaren asmoa da, orobat, Planaren jarraipenerako adierazleak aginte-koadro bat ezartzea, horrek aukera emango duelako, urte urte, gizarteratzearen inguruan gizarteak dituen beharren bilakaera eta haien prebentzioarako eta haiei aurre egiteko garatutako neurrien irismena aztertze.

1.2. Metodologia

IV. Planaren jarraipen-lanaren oinarriak izan dira, funtsean, informazio-bilketa eta bi datu motaren ondorengo azterketa.

- alde batetik, Planean aurreikusitako neurri desberdinen garapen-mailarekin lotutako informazio eguneratua, neurri horietako bakoitzaren ardura duten administrazioek emandakoa;
- beste alde batetik, kanpoko iturrietatik lortutako adierazle estatistikoak, Planak ukitzen dituen eremuei dagokienez EAEko herritarrek bizi duten egoera azaltzen dutenak (enplegua, diru-sarrerak, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, etab.), eta batez ere gizarteratze- edo baztertze-egoerei erreparatzen dietenak.

Planean jasotako ekintzen garapen-maila ezagutzeko egindako jarraipenaren informazioa biltzeko, honako ekintza hauek burutu dira:

- Informazioa eskatzeko galdetegi bat igorri zaie inplikaturako 27 erakundeei (Eusko Jaurlaritzako Sailak, foru-aldundiak eta 20.000 biztanletik gorako udalak), Planean haiei esleitzen zitzaizkien ekintzei buruz eta haien garapen-mailari buruz galdetuz (2018ko iraila).
- Balizko ekintzei buruzko informazio gehigarria bildu da beste iturri batzuetatik (arautegiak, web-orriak, prentsa-albisteak, etab.).

- Lortutako informazioaren lehen analisia (2018ko abendua) egin zen eta Batzorde Tekniko Politikoaren lehenengo bileran aurkeztu zen (2018ko abenduaren 17an).
- Berriro hitz egin da erakundeekin, eskatu zitzaizkien datuak bidaltzeko edo zabaltzeko eskatuz (azken datuak 2019ko urtarrilaren 24an jaso dira).
- IV. Planaren urteko jarraipen-txostenaren zirriborroa prestatu da (2019ko otsaila).
- Zirriborroa balioetsi zuten Planaren aplikazioaren ardua zuten erakundeek (2019ko martxoan).
- Behin betiko txostena prestatu zen (2019ko apirila).

Erakundeek emandako informazioa aztertu eta balioestean, komenigarria da hainbat alderdi kontuan izatea:

- Galdetegiari erantzun zioten Eusko Jaurlaritzako hamahiru zuzendaritzak, hiru foru aldundiek, EUDLEk eta zazpi udalek. Ez zuten erantzunik eman Eusko Jaurlaritzako bi zuzendaritzak edo erakundeak eta hamar udalek. Jasotako informazioa jarduketa batzuei buruzkoa da, hau da, jarduketa horiek burutu edo abiatu dituzten erakundeek emandako informazioa, baina litekeena da jarduketaren bat egin izana, batez ere udalen aldetik eta Eusko Jaurlaritzaren zenbait Sailen aldetik, eta horren gaineko informazioak bildu ez izana.
- Jasotako informazioak, oro har, 2018an egindako jarduketan berri ematen du, baina batzuetan 2019rako aurreikusitako jarduketak edo 2017an hasitakoak ere aipatzen ditu.
- Informazioa biltzeko prozesuan zehar, erakunde bakoitzari eskatu zitzaion Planaren berari esleitutako jarduketan berri bakarrik emateko, eta halaber, jarduketa bakoitzaren gaineko informazioa erakunde bakar batek ematea izan zen asmoa. Horrek erantzunak erraztu ditu, baina zenbait kasutan, egindako jarduketa guztiak ez jasotzea ere eragin lezake.
- Jasotako informazioaren zehaztasun-maila desberdina da, batetik eskura dagoen informazioagatik, eta bestetik neurriaren beraren zehaztasunagatik.
- Informazio guztia datu-base batean jaso da, eta erantzun duten erakunde guztien eskura dago.
- Planaren garapenaren ikuspegi orokor bat lortzearen, jarduketak hiru kategoriatan sailkatu dira: garapen-maila altua (barne dira gauzaturtat jo daitezkeen jarduketak), garapen-maila ertaina (barne dira hasi bai baina burututzat jo ez daitezkeen jarduketak) eta garapen-maila baxua (barne dira hasi gabeko jarduketak edo haien berririk jaso ez direnak).
- Txosten honen helburua da Planaren garapenaren jarraipena erraztea. Txosten honen asmoa, fase honetan, Planaren eragina ebaluatzea baino, Planaren garapen-maila irudikatu ahal izateko informazio aski biltzea da, arreta gehiago behar duten helburuak atzematea eta, behar izanez gero, jarduketa edo neurri gehiago planteatzea. Arrazoi horregatik jaso dira, gehiengotan, prozesu-adierazleak, eta ez eragin edo emaitzen adierazleak, betiere Planaren ebaluazioari baitagozkio horiek.

Jasotako informazio estatistikoari dagokionez, 2017 eta 2018 urteei buruzko informazioa eskaini nahi izan da, ahal izan delarik generoaren arabera bereizitua, Planaren garapena benetan urte horietan hasi

zelako. Nolanahi ere, datuen erreferentziazko aldia desberdina izan daiteke, erabilitako estatistika desberdinek eskura izan dituzten datuen arabera. Adierazleak honako irizpide hauen arabera aukeratu dira:

- Eskuragarritasuna: erabili diren datu gehienak datu publikoak dira, iturri estatistikoetatik edo erakundeen memorietatik jasotakoak, herritar guztien eskura egoten direnak haien web-orrietan.
- Maiztasuna: maiztasun jakin batez eguneratzen diren iturriak aukeratu izan dira, unean uneko azterlanak baztertuz, adierazle horien jarraipen iraunkorra egin ahal izateko.
- Eguneratuta egotea: datu eguneratuak eskaintzen dituzten iturriak erabili dira, 2016an abiatu eta 2017ko datuak ere jasoz, iturria urtero eguneratzen den kasuetan. Hala ere, irizpide hori, neurri handi batean, datuen eskuragarritasunaren arabera izaten da.
- Egokitasuna: EAEko herritarren egoera orokorra islatzen duten adierazleak zehaztu dira, kontuan izanda Gizarteratzeko IV. Planaren eragina zuzen edo zeharka neurtzen duten alderdiak. Era berean, informazio hori osatzeko, gizarte-bazterketako egoeren prebentzioarekin lotura duten hainbat zerbitzu eta prestazio ekonomikoren erabilerari buruzko datuak erabili dira. Ildo horretatik, aginte-koadro horretan sartu dira, bai prozesu-adierazletzat jo daitezkeenak, bai eraginaren adierazletzat jo daitezkeenak ere. Hala ere, bi adierazle mota horien arteko aldea ez da beti argia izaten.

Erabilitako txosten eta iturri estatistikoak honako hauek izan dira:

- Osasun Saila. EAEko Osasunari buruzko Inkesta
- Osasun Saila. Euskadiko Adikzioei buruzko Inkesta.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko azterketa.
- EUSTAT Eskola-jarduerari buruzko Estatistika
- EUSTAT Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika
- EIN. Soldaten egiturari buruzko Inkesta
- EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta
- Osasun Saila. Haurdunaldiaren borondatezko eteteen EAEko erregistroaren txostena.
- ISEI-IVEI. PISA Euskadi txostena.
- ISEI-IVEI. Hezkuntzako Adierazleen EAEko Sistema
- MEFP. Unibertsitatetik kanpoko Irakaskuntzei buruzko Estatistika
- MEFP. Hezkuntzaren zenbakiak Espainian
- MITRAMISS. Langabezia-prestazioen Estatistikak
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika / Gizarte Premiei buruzko Inkesta.

- Hirigintza eta Ingurumen Saila. Etxebizitzen Beharren eta Eskariaren Inkesta
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Pobreziari eta Gizarte-ezberdintasunei buruzko inkesta.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika
- Osasun Saila. Hiesaren eta Sexu Transmisioko Infekzioen Plana.

1.3. Txostenaren egitura

Txosten honek laburbiltzen du Planean sartzen diren lan-ardatz eta eremu bakoitzeko ekintza desberdinen garapen-mailaren inguruan eskura dagoen oinarritzko informazioa. Análisi kualitatiboa da, eskura dagoen informazioa bildu eta osagairik esanguratsuenak azpimarratzeko asmoz egina, hala garapen-mailarik handiena duten jarduketek kasuan, nola bultzada handiagoa behar duten jarduketek kasuan ere.

Txostenak bi eranskin ditu: lehenengoan, zenbait taula erabiliz agertzen da plana osatzen duten 148 neurriek dagokien oinarritzko informazioa, hala nola neurri horien egikaritzari buruzko hainbat datu, erakunde desberdinek emandako informazioan oinarrituta. Bigarren eranskinak, berriz, Gizarteratzeko Planaren jarraipenerako aginte-koadroa osatzen duten estatistika-arloko testuinguru-adierazleak jasotzen ditu 17 taula eta 41 grafikotan.

1.4. Ondorio orokorrak

Planaren jarraipen-prozesuari berari dagokionez, azpimarragarria da lehen aldiz garatu dela Gizarteratzeko Planaren baitan era horretako ekimen bat, oraindik ere hobetu beharra bada ere, jarraipen-sistematikaren ikuspegitik. Nolanahi dela ere, **galdetegiaren erantzun-maila ona** izan da (udalei dagokienean izan ezik, izan ere, 17 udalek hartu zuten galdetegia, eta zazpi bakarrik erantzun diote inkestari). Hala eta guztiz ere, **Planak egiazko indarra izan duen lehenbiziko urte honetan egin den jarraipen-prozesuak dagoeneko aukera ematen du ikusteko zein eremutan egiten ari den aurrera eta zeinetan den beharrezkoa bultzada handiagoa.**

Taulan ikusten denez, 148 neurrietatik 27 (% 18) burututzat jo daitezke, 97 hasitzat (% 65), eta 14 neurri (% 9,4) hasi gabekotzat. Beste hamar neurrien (guztien % 6,7) berririk ez dago. **Planaren jarduketek % 80tik gora gauzatu dira edo gauzatzeko bidean dira**, eta logikoa da, izan ere, kontuan hartzen bada gehienak lehenik ezartzen ari zirela, Gizarteratzeko Planaren aurretik edo Planetik kanpo, lehenik onartutako egitasmoetatik eratortzen direlako. Beste alde batetik, zenbait kasutan, gauzatu edo hasitako neurriek ez diote guztiz erantzuten Planean planteatu den helburuari. Hala ere, balorazioa nahitaez ona da, izan ere, argi ikusten baita neurri gehienak, era batean edo bestean, gauzatu direla.

Tabla 1. Ekintzen gauzate-maila

	Handia	Ertaina	Txikia	Guztira
Enplegua	8	14	4	26
Diru-sarreraren bermea	1	8	1	10

Gizarte Zerbitzuak	0	10	2	12
Osasuna	10	16	2	28
Etxebizitza	1	14	1	16
Hezkuntza	4	10	0	14
Artikulazioa eta koordinazioa	2	29	11	42
Guztira	26	101	21	148

Iturria: Geuk egina.

Balioespen orokor gisa, azpimarragarria da neurririk garrantzitsuenak gauzatu direla edo gauzatzeko bidean direla:

- Enpleguari dagokionez, nabarmendu behar da hainbat programa eta dirulaguntza abiarazi direla (Lehen Aukera, Proiektu Bereziak, Gazte Enplegurako Programa Operatiboa, Enplegu Zentroetarako Laguntza, gizarteratze-enpresentzako laguntzak, kontratatze konpromisoari lotutako prestakuntza, etab.). Guztiak batera kontuan hartuta, Planaren ardatz honetan aurreikusitako programek eta laguntza-deialdiek dagoeneko inbertitu dute edo inbertituko dute, 2018an eta 2019an, 70 milioi eurotik gora.
- Azpimarratu behar da, halaber, enpleguaren arloan, aurrerapausoak ematen ari direla lan-baldintzak zaintzeari dagokionez, ikuskaritza zerbitzuen bitartez, Lanbideren eraberritzean eta modernizazioan, eta Emakundek soldata-arrakala murrizteko abiatu duen estrategian ere aurrera egin dela.
- Diru-sarrerren bermeari dagokionez, garapen-maila ertaina da; izan ere, diru-sarrerren bermesistema arautzen duen arautegia eguneratzeko lanetan aurrera egin den arren, arautegi berri hori oraindik ez da eztabaidatu Legebiltzarrean. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei dagokienez, nolabaiteko aurrerapena egon dela esan daiteke, 121/2018 Dekretua onartu baita, bigarren seme edo alabarentzako hirugarren urteko laguntza ezarriz.
- Era berean, esan daiteke aurrerapen handiak izan direla gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen planifikazioari dagokionez ere, lehen eta bigarren arretako gizarte-zerbitzuen mapak zehaztu baitira hiru lurraldeetan. Udalen aldetik baliabide berri gutxi samar sortu direla dirudien arren (oro har, lehendik zeuden plazak eta baliabideak mantendu dira), foru-aldundiak nabarmen ari dira aurreratzen Gizarte Zerbitzuen Maparen eskakizunen arabera eta Zorroaren Dekretuaren irizpideen arabera egokitzeko prozesuan, zentro eta baliabide berriak sortuz, lehendik zeudenak marko berriaren arabera egokituz, ratioak zabalduz, arretarako ereduak zehaztuz, etab.

Aurrera egin da, baita ere, gizarte-itunaren erregulazioari dagokionez, figura hori arautuko duen Dekretua oraindik onartu ez bada ere, eta aurreratu, baita ere, komunitate-aktibazioko ekimenen garapen experimentalari dagokionez eta kultura eta kirola gizarteratzeko bide gisa esperimentatzeko programa pilotuei dagokienez.

- Aurrerapenak aipatu daitezke, era berean, 2019an gauzatzekoak direlarik, Etxebizitzaren arloari dagozkion jarduketan kasuan; besteak beste, aipagarriak dira etxebizitzaren eskubide subjektiboaren erregulazioa, Gaztelagun programaren garapena, zuzkidura-bizitokien sorrera, etxebizitzak Hirugarren Sektoreko entitateen esku jartzea, Bizigune eta ASAP programen bultzada, Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren kudeaketaren eskualdatzea, etab. Hiri-

gintzaren planifikazioari dagokionez, aipagarriak dira hiriko birgaitze, zaharberitze eta berroneratzeko esku-hartzeen sustapena, planifikatzeko aukera areagotuz, eta Indartu programa mantentzea.

- Osasunaren arloan, aurrerapen nagusiak egin dira baztertzeko-egoeran dauden edo kalteberak diren pertsonen osasun-sistemara iristeko duten aukerari dagokionez, azaroaren 14ko 247/2017 Dekretua onartu eta garatu baita, Euskadiko osasun-sistemako langileek preskribatutako tratamendu medikoak jarraitzea errazteko helburua duten laguntzak handitzen dituela. Era berezian da azpimarragarria, arlo horretan, urtebetetik hiru hilabetera jaitsi dela Osasun Txartel Indibiduala lortzeko eskatzen den gutxieneko erroldatze-epea, era irregularrean bizi diren etorkinentzat. Jarduketa hori, ordea, ezin da gauzatzat eman, Konstituzio Auzitegiak indargabetu baitzuen Dekretua. Horrez gain, egoera irregularrean dauden pertsona emigranteentzako Osasunaren babes integraleko programa sortzeko instrukzioa argitaratu zen 2017an, eta han ezabatu egiten da aurrez erroldatuta egoteko gutxieneko epea ezartzen zuen eskakizuna.
- Hezkuntzaren eremuan, aipagarriak dira, alde batetik, hezkuntzaren programa osagarriak indartu eta mantendu direla (Bidelaguna, Hamaika esku, Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa, etab.), eta bestetik, leku gehiago eskaintzen direla Haurreskolak Partzuegoan, eta Haurreskolen matrikula ordaintzetik salbuetsi direla 18.000 euro baino gutxiagoko errenta duten familia-unitateak.
- Kalteberatasun handieneko gazteek Lanbide Heziketara sartzeko eta ondoren lanean hasteko duten aukeraren sustapenari dagokionez, jarraitu beharreko ereduaren inguruko arautegia aztertzen ari da, Oinarrizko et Gradu Ertaineko Lanbide Heziketa eredu bat diseinatu ahal izateko, helburua dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Graduatua lortu ez duten 15-17 urte bitarteko gazteen beharrei erantzutea. Lanbide-heziketaren alorrean, heziketa dualaren ereduaren finkapenean ere aurrerapausoak eman dira.
- Aurrerapenak izan dira genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat antolatutako baliabideen hobekuntzan.
- EAEko gizarteratze-sistemaren ezagutzaren kudeaketa eta berrikuntza sustatzea, eta haren gizarte-zilegitasuna bermatzea da beste helburuetako bat, eta aurrerapenak izan dira DBEren kudeaketaren inguruko zenbait datu argitaratzeari eta gaiaren inguruko berariazko zenbat ikerketa egin izanari dagokienez.
- Azkenik, aurrerapenak izan dira sistemaren artikulazioari eta gobernamentuari dagokienez, esaterako jarraipen-txosten hau bera prestatu izana da horietako bat, edo Planaren jarraipenerako Batzorde Tekniko Politikoa sortu izana, bazterketa-arriskuan diren eta DBE hartzen duten pertsonen jarraipena indartzeko proiektu bat diseinatu izana gizarte-zerbitzuetatik, gaiaren inguruko gradu-ondoko bi titulu unibertsitario sortu izana, edo laster sortzeko den lehen arretako jardunbide onen bankua, besteak beste.

Garapen-maila txikia erakusten duten neurrietatik honako hauek nabarmendu daitezke:

- Diru-sarrerak bermatzeko prestazioak arautzen dituen araudiaren erreforma, helburu direla enplegurako pizgarrien sistemaren hobekuntza edo seme-alabak beren kargu dituzten baliabide gutxiko familien prestazioak hobetzea.
- Enpleguaren arloan, garapen eskas samarra izan dute laneratzeko enpresen edo Enplegurako Zentro Berezien eta enpresa arrunten arteko elkarlana sustatzeko neurriak; laneratzeko sustatzeko proiektu pilotuen garapena; DBE hartzen duten edo iraupen luzeko langabezia dauden

pertsoneri egindako errelebo-kontratuen hobariak handitzea; eta laguntzaren beharrik handiena duten pertsonen orientaziorako eta laneratzeko berariazko eredu bat ezartzea Lanbiden.

- Gizarte Zerbitzuei dagokienez, garapen-maila txikia izan dute Zorroaren Dekretuan aurreikusten zen gizarteratzeko Gizarte Zerbitzuen erregulazioak eta Dekretu horri berari dagokion berrikuspenak.
- Osasunaren arloari dagokionez, eskasak izan dira gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako berariazko artapen-bideen zehaztapena eta gizarte-kalteberatasun handieneko kolektiboak osasun-sistemara iristeko bidea erraztuko duten berariazko esku-hartzeen garapena, Hirugarren Sektoreko entitateek zenbait kolektiboren bitartekari gisa izan dezaketen eginkizuna sustatuz.
- Hezkuntzaren arloan, ez da nahi beste garatu gizarte-, hezkuntza- eta osasun-arloetako eragileen arteko lankidetzak eta sareko lana, gizarte eta hezkuntzaren arloetan eragozpenik handiena dituzten ikasleei erantzun integrala emateko, ingurune heziketa-planak antolatuz.
- Sistemaren artikulazioari eta koordinazioari dagokienez, ez dira nahi beste garatu honako hauek: Gizarte Zerbitzuen berrikuntza eta ikerketaren inguruan antolatzen diren jarduerak artikulatu eta egonkortuko dituen plataformaren eraketa; administrazio publikoen eta entitate pribatuen arteko lankidetzarako protokoloak edo akordioak, kasuen erreferentzia eta koordinazio eginkizunetan elkarrekin esku hartzeko; eta gizarte-bazterketaren arretarako eredu bat diseinatzea, zerbitzuen ezaugarriak eta esku-hartzeen prozedurak orientatzeko.


2. 1. ardatza. Enplegua eta diru-sarreraren bermea

2.1. Enplegua

2.1.1. Balioespen orokorra

Gizarteratzeko Planak 6 xede eta 26 ekintza zehatz aurreikusten ditu enpleguaren arloan. Haietatik **% 31 dira garapen-maila handia dutenak, % 54 garapen-maila ertainean daude eta % 15 garapen-maila txikian.**

1. grafikoa. Enpleguaren esparruan aurreikusitako jarduketaren egoera orokorra garapen-mailaren arabera



Iturria: Geuk egina, jasotako informaziotik abiatuta

Hasi edo gauzatu diren neurrien artean azpimarragarriak dira lan-baldintzen zaintzarekin eta lan-ikuskapenen sustapenarekin lotutakoak, eta orobat gazteen laneratzearekin, haien laguntza-beharrekin eta haien enplegatzeoko aukeren sustapenarekin (Planaren 2. xedea) lotutakoak. Eredu horren testuinguruan kokatzen dira, esaterako, **Gazte Enplegurako Programa Operatiboa, Lehen Aukera** izeneko programa, proiektu bereziak, enplegurako zentro berezientzako eta laneratzeoko enpresentzako laguntzak, etab. Arlo horretan, **azpimarragarria da 2018an 33 milioi inbertitu izana lanpostuak mantentzeko enplegu-zentro berezietan, eta 10 milioi baino gehiago inbertitu izana laneratzeoko enpresak sortzeko eta mantentzeko; era berean, lau milioi euro inbertitu ziren langabezia dauden edo enplegua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeoko proiektu berezien garapenerako**. Guztiak batera kontuan hartuta, Planaren ardatz horretan aurreikusitako programek eta laguntza-deialdiek dagoeneko inbertitu dute edo inbertituko dute, 2018an eta 2019an, 70 milioi eurotik gora.

Hasitzat jo da, halaber, Planaren 1. jarduketa, alegia, **soldata eskasak dituzten langileen diru-sarrerak bermatzeko prestazioak sendotzeko** helburuz DBEren markoan jasotzen den enplegu-pizgarrien sistema sendotzea planteatzen zuena. DBE arautzen duen araudia erreformatzeko proposamenak sistema hori indartzea aurreikusten zuen –DBE hartzeko, laneko errentaren osagarri modalitatean, gaur dauden denbora-mugak ezabatuz eta denbora epemuga gabe hartzeko aukera zabalduz, betiere horretarako baldintzak betez gero–; proposatutako erreforma hori onartu ez denez **jarduketa hori ez daiteke gauzatu** jo.

Lanbideren arreta-eredua erreformatzeko eta modernizatzeko bidean ere aurrera egin da (Planaren 3. xedea) eta jarduketa azpimarragarri batzuk egin dira gizarte-ekonomiaren eta autoenpleguaren sustapenari dagokionez (esaterako, 126 kooperatiba sortzea sustatu da). Aurrerapenik izan da, baita ere, zenbait administrazioen aldetik (Bizkaiko Foru Aldundia, Donostiako Udala, etab.) kontratazio publikoan izaera sozialeko klausulak garatzeari dagokionez. Berez Planaren hasieran aurreikusia ez bazegoen ere, nabarmendu behar da Emakunde **Euskadin soldata-arrakala murrizteko abiarazitako Estrategia eta Ekintza Plan Operatiboa**, eragin zuzena izango duelako Planaren 6. xedean (emakumeen aktibazio- eta enplegatze-tasa handitzea kalitatezko enpleguak eskainiz).

Garapen-mailarik txikienak erakusten dituzten neurriak lau dira, hain zuzen ere: laneratzen laguntzeko proiektu pilotuen garapena (garraiorako, familia-bizitza bateragarria izateko...); DBE hartzen duten edo iraupen luzeko langabezia dauden pertsonen errelebo-kontratueterako hobariak handitzea;

Lanbiden laguntzaren premia handia duten pertsonentzako berriazko orientaziorako eta laneratzeko eredu bat ezartzea; eta azkenik, enpresa arrunten eta laneratzeko enpresen edo Enplegu Zentro Bezeien arteko elkarlana sustatzea.

2.1.2. Enpleguaren esparruko jarraipen-adierazleak

Plana abiarazten den unean (2016/2017), EAEn honako egoera hau adierazten zuten enpleguaren esparruari dagozkion adierazleak:


- 2017an, EAeko **jarduera-tasa** globala % 56,2koa zen; tasarik txikiena % 31,3koa zen 25 urtetik beherako gazteen artean, eta handiena % 76,8 atzerriko herritartasuna duen populazioaren kasuan. **Enplegu-tasa** % 49,8koa zen eta **langabezia-tasa** % 11,3koa. **Iraupen luzeko langabezia-tasa** % 6,5koa zen.
- 2016an, **langileen pobrezia-tasa** % 7,5koa zen (gizonen % 6,3 eta emakumeen % 8,9).
- 2017an, **laneko behin-behinekotasunaren tasa** % 24,5koa zen, eta **lanaldi partzialean enplegatutako pertsonen tasa** % 17,2koa zen.
- Kontratazioarekin lotutako adierazleen arabera, berriz, **pertsona bakoitzeko batez besteko kontratu-kopurua** 3,09koa zen, eta **kontratuen batez besteko iraupena** 31 egunekoa.
- Soldatekin lotutako adierazleei dagokienez, **lanordu arrunteko irabazia** 18,17 eurokoa zen, eta beheko kuartilaren eta goiko kuartilaren arteko **soldata-arrakala** 2,23 eurokoa zen.
- **DBE hartzen zuten pertsonen tasa, enplegurako pizgarrien modalitatean**, 5,5 lagunekoa da 10.000 biztanleko. **Langabeziako estatu-prestazioen hedadura** langabezian dauden pertsonen % 36,8ra iristen da.

2.2. Diru-sarreraren bermea

2.2.1. Balioespen orokorra

Diru-sarreraren bermearen esparruan, Gizarteratzeko Planak lau xede eta berriazko hamar jarduketa aurreikusten ditu. Haietatik, zortzi hasiak dira, bat gauzatu da dagoeneko, eta bestearen inguruko informaziorik ez dugu.

2. grafikoa. Diru-sarrereren bermearen esparruan aurreikusitako jarduketan egoera orokorra garapen-mailaren arabera



Iturria: Geuk egina, jasotako informaziotik abiatuta

Hasi bai baina burutu ez diren jarduketak gehienak diru-sarrerak bermatzeko prestazioak arautzen dituen araudia erreformatzeko proposamenean jasotzen ziren baina, hura Eusko Legebiltzarrean tramitatzeko Lege-proposamen baten bidez aurkeztu bazen ere, ez zen azkenean eztabaidatu. Ildo horretatik, **hasi bai baina ez-burututzat jo daitezke elkarbizitza-unitatearen kontzeptua sinplifikatzeari dagozkion jarduketak, eskuratzeko eta kudeatzeko prozesuen ordenamenduari dagozkionak, eta gaur-gaurkoz estaldura egokia ez duten beharrian eta kolektiboen arretaren hobekuntzari dagozkionak.** Norbanakoen nortasunaren kontrolaren eta EAEko lurraldeko egiazko bizitokiaren kontrolaren hobekuntzari, eta balizko iruzur-egoeren prebentzioari dagokienez, abian jarri da **nortasuna hatz-markaren bitartez egiaztatzeko sistema ezartzeko programa pilotu bat**, 2019ko martxorako hedatu nahi dena¹.

Gizarte Larrialdiko Laguntzei dagokienez, Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako araudi-erreformaren proposamenean, haiek hobetzeko hainbat proposamen jaso ziren, nolana ere aurrera atera ez direnak, Lege-proposamena erretiratu baitzuten hura bultzatu zuten alderdiek.

Beste alde batetik, **zenbait aurrerapen gauzatu dira Autonomia Erkidego osorako diru-sarreraren bermerako politika integral eta eraginkor bakarra diseinatzeari dagokionez** (9. xedea), izan ere, **Estatu Gobernuak bere gain hartu baitu 2019ko aurreneko lau hilabeteetan langabeziaren arretarako babes-eredu berri bat aurkezteko konpromisoa**, haren edukiak negoziatu beharrak izango direlarik, besteak beste, EAEko administrazioekin. Ez dago informaziorik, ordea, 35. ekintzaren inguruan. Hartan planteatzen zen Estatuak kudeatzen dituen prestazio, sorospen eta kotizazio gabeko pentsio guztiei lotutako kudeaketa eta eskumena erreklamatzea, Autonomia Erkidego osoan diru-sarrerak bermatuko dituen eta laguntzak eta prestazioak sinplifikatuko dituen politika oso eta eraginkor bakar bat diseinatzeko.

Aurrerapenik ere izan da 10. xedean aurreikusten diren jarduketei dagokienez, hau da, **seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomikoen sistema hobetu eta arrazionalizatzearen** inguruan. Alde batetik, diru-sarreraren bermearen araudia erreformatzeko Lege-proposamenean jaso zen alda-

¹ Gaur-gaurkoz, 9.005 lagunen datu biometrikoak jaso dira.

keta nabarmena ematea, familiarik handientzako edo seme-alabak dituzten familientzako diru-kopuruetan, baina gaur-gaurkoz ez da gauzatu, Lege-proposamena erretiratu izanaren ondorioz. **Aldiz, gauzatutzat jotzen da kargurako seme/alaba bakoitzarengatik jaso beharreko prestazioen sistemaren hobekuntza, 121/2018 Dekretua onartu eta hirugarren urtea erantsi baitzaie bigarren seme/alabengatik.**

2.2.2. Diru-sarrerren bermearen esparruaren jarraipen-adierazleak

Plana abiarazi zen unean (2016/2017), EAEn honako egoera hau adierazten zuten pobrezia eta diru-sarrerren bermeari dagozkion adierazleak:

- 2016an **batez besteko errenta** pertsonala Euskadin urteko 20.443 eurokoa da, eta gizonen (25.696) eta emakumeen (15.578) arteko aldeak nabarmenak dira. Errenta pertsonalaren eskualde hedadura tasa % 8,15ekoa da, mailarik handiena Bilboko Eskuinaldean duela (23.571) eta txikiena Ezkerraldean (17.192).
- **Pobrezia eta gizarte-bazterketaren arrisku-tasa (ARPE)** % 20,6koa zen 2016an, eta hura osatzen duten adierazleei dagokienez, **pobrezia erlatiboaren tasa** % 16,4koa zen; **gabezia material larriaren tasa** % 6,4koa zen eta **lan-intentsitate baxuaren tasa** % 10,2koa.
- Desberdintasunari dagokionez, **Gini koefizientea** 0,25ekoa da; **S80/S20 ratioa** 3,9 da; eta **% 10 pobreenaren parte-hartzea diru-sarrera guztien gainean** % 3,48koa.
- **DBEren hedadurari** dagokionez, 2017an titularren kopurua populazioaren % 2,75ekoa da, alegia, 76.183 lagunek hartzen zuten urte osoan zehar, eta **batez beste hartu zuten diru-kopurua** 5.010 eurokoa izan zen.
- Gizarte Larrialdiko Laguntzei dagokienez, 59.365 **dirulaguntza eman ziren**, guztiak batuta 34 milioi euro eman zirela, Eusko Jaurlaritzak (% 78,8) eta Udalek (% 21,2) finantzatutakoak.
- **Diru-sarrerak bermatzeko sistemaren eraginari** dagokionez, 2016an EAeko herritarren % 3,3 atara zen pobreziatik prestazio horiek hartu izanari esker, hau da, artatutako populazioaren % 53,1 eta pobrezia arriskuan dagoen populazioaren % 36,8.
- **Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzei** dagokienez, 2016an guztira 28.695 eskari onartu ziren, alegia, aurkeztutako eskari guztien % 94,9.


3. 2. ardatza. Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Etxebizitza eta Hezkuntza

3.1. Gizarte Zerbitzuak

3.1.1. Balioespen orokorra

Gizarteratzeko Planak Gizarte Zerbitzuetarako berariazko hamabi jarduketa aurreikusten ditu, lau xedetan bilduta. Horietatik garapen-maila ertaina izan dute 10 ekintzek (% 83) eta bi ekintzek (% 17) izan dute garapen-maila txikia, eta ezin da esan bakar batek ere garapen-maila handia duenik.

3. grafikoa. Gizarte Zerbitzuen esparruan aurreikusitako jarduketan egoera orokorra garapen-mailaren arabera



Iturria: Geuk egin, jasotako informaziotik abiatuta

Planak indarra izan duen lehenengo urtean aurrerapen batzuk izan dira 11. xedeari dagokion arloan (Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Zerbitzu eta Prestazioen Zorroa garatzea gizarteratzeko zentroei eta zerbitzuei dagozkien gauzetan). Beraz, **udalen eskumeneko lehen arretako zentroyen garapenari** dagokionez (Planaren 39. jarduketa), informazioa jaso da Bilbo, Donostia, Gasteiz, Barakaldo, Getxo, Leioa, Sestao, Portugalete eta Irungo udalerrietatik. Garatutako jarduketa zehatzetatik azpimarragarria da, lehendik zeuden zerbitzuak mantentzeaz gain, gaueko harrera-zerbitzu bat sortu izana Irunen, hobekuntzak egin direla Donostiako Gaueko zentroan, gizarte-larrialdiko zazpi etxebizitza –28 plaza– ireki izana Gasteizen, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako zaintzapeko hiru etxebizitza irekiko direla laster Donostian eta bi etxebizitza ireki direla Getxon. Aipagarriak dira, halaber, bazterketa-egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonentzako zaintzapeko zenbait etxebizitza modu mankomunatuan ireki direla Gipuzkoako Beterrri-Buruntza eskualdean, Oiartzualdeko gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen mapa egin dela –hor planteatzen da gaueko eta eguneko arretarako plaza

berriak sortzea, eta intentsitate ertaineko gizarte-akonpainamendurako zerbitzu bat sortzea Foru Aldundiarekin lankidetzan– eta Gipuzkoan laster egitekoa dela gizarteratzeko lehen arretako gizarte-zerbitzuen kudeaketa eta hornidura berrantolatzeke alternatibei buruzko azterlan bat.

Gizarte-bazterketaren arloko bigarren arretako zentro eta ekipamenduz ari garela, nabarmendu behar da, batez ere, hiru foru-aldundiak plaza berriak diseinatu, planifikatu eta zabaltzeko aurrera eramaten ari diren lana. **Eguneko arretako zerbitzuei** dagokienez (Planaren 40. jarduketa) honako aurrerapen hauek nabarmendu daitezke:

- Araban okupazio-tailerrak eta laneratu aurreko tailerrak antolatu dira gizarteratzea sustatzeko, Gasteizko Caritas Diozesiarrarekin lankidetzan, eta aurrerapausoak eman dira gizarteratzeko zerbitzuen planifikazioa egiteko 2019ra begira.
- Bizkaian, berriz, aurrerapauso handiak eman dira gai horretan:
 - o gizarte-bazterketako egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonentzako okupazio- edo laneratzeko tailerrak eta eguneko zentroak eskaintzeko lankidetzak hitzarmenak formalizatu eta eguneratu dira;
 - o eguneko zerbitzuak zabaldu dira EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako lau sektoreetara, hirugarren sektoreko entitateekin lankidetzan, eta buruko gaitzak dituzten pertsonen begirako esku-hartzearekin lotura duten eguneko zentroen kasuan, Osakidetzarekin lankidetzan;
 - o Gizarteratzeko Zerbitzuaren programa gaztearen hiru ardatzetan gazteei arreta osoa eskaintzeko eguneko zentroak sortzeko eta kudeatzeko hitzarmenak formalizatu dira.
 - o Eguneko zerbitzuak egokitu dira Gizarteratzeko Zerbitzuaren esku-hartze ereduaren arabera, erreferentziako marko fisikoa izan daitezen, beren komunitate-ingurunean gizarte-bazterketako egoeran edo horren arriskuan diren pertsonen begirako esku-hartzea gauzatzeko.
 - o Okupaziorako eta laneratu aurreko sarea egokitu da, eguneko zerbitzuen eremuan integratutako laguntza-sarea bihurtzeko bidean, zerbitzu horien erabilzaileren eskaintzeko beren gizarteratze-prozesuan beharrezkoak dituzten okupazio eta laneratu aurreko prestazioak.
- Gipuzkoan, Elkarrekin Planaren baitan, lanean hasi dira eguneko hainbat zentro berri, eta Debagoieneko eta Bidasoaldeko eguneko zentroak handitu dira, 17 plaza berri eskainiz Gipuzkoa banatzen den bi sektoreetan. Gizarte Zerbitzuen Mapa 2018–2021 ekimenak, gainera, Lurralde horretan eguneko arretako 57 plaza berri sortzea eta ematen diren zerbitzuak Zorroaren Dekretuaren eskakizunen arabera egokitzea aurreikusten du.

Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza nahiz egoitza-zentroetako plazak zuzkiduraz ari garela (Planaren 41. jarduketa):

- Araban, baliabideak berregokitzeko eta berriak sortzeko planifikazio-prozesu bat burutu da, hango Hiesaren aurkako Batzordearekin eta ADAP erakundearekin lankidetzan;
- Bizkaian zerbitzuen katalogoan jasotako zentro mota desberdinen eskaintza antolatzeke lankidetzak hitzarmenak formalizatu dira, eta 12,3 milioi euro inguruko aurrekontua esleitu zaie;
- Gipuzkoan, Elkar Ekin Planaren markoan, zentroetako arretako ratioak handitu dira eta zentro horietan eskaintzen diren prestazio teknikoak Zorroaren Dekretuaren eskakizunen arabera egokitzeko prozesuan aurrerapausoak eman dira. 2017an 32 plaza berri sortu ziren, 2018an 16 plaza berri, eta 2020rako aurreikusten da 32 plaza berri sortzea.

Emantzipaziorako prestakuntza-zentroen eta etxebizitzaren eskaintza doia garatzeari dagokionez (Planaren 42. jarduketan), Arabak orain duen hornidurari eusten dio (52 erabiltzaile 2017an), eta aurrera jarraitzen du Aukera izeneko jarraipen-programarekin, Adingabekoaren Kontseiluaren zaintzapean egon diren gazteei akonpainamendua eta gaikuntza eta zaintzaren ondorengo laguntzak eskainiz. Gipuzkoan, berriz, lehendik zeuden plazak berrantolatu dira eta biztanleko plazen ratioa handitu da; Bizkaian, Gizarteratzeko Zerbitzuaren esku-hartzearen hasiera, Haurrentzako Zerbitzuaren aldetik, betiere erabiltzailearen baimenez, Zorroaren Dekretuko 2.4.4. fitxan jasotako prestazioak, eta zehatzago esanda, 2.4.4.4. fitxan jasotako prestazio guztiak garatu ondorengo unerako aurreikusten da.

Azkenik, **egoera kronifikatua dauen pertsonentzako egoitza-zentroetako plazak (2.4.5.1.) eta gizarte-bazterketako beharrezkoen arretarako gaueko harrera zentroen (2.3.2.)** eskaintzari dagokionez, Bizkaian, gaueko harrera-zentroaren eskaintza antolatzeke asmoz Bilboko Caritas Diozesiarrarekin eta Bilboko Udalarekin lankidetzaren hitzarmena formalizatzeko prozesua aurrera doa. Araban, balia bideak berregokitzeko eta berriak sortzeko planifikazioa burutu da, Arabako Hiesaren aurkako Herritarren Batzordearekin eta ADAP erakundearekin lankidetzan. Gipuzkoan 16 plaza berri hitzartu dira eta arretaren ratioa handitu da 30 plazari dagokionez; gainera, plazen eskaintza berrantolatzea aurreikusten da, zerbitzuen prestazioa areagotu behar delako, eta intentsitate altuko zentro bat sortzea aurreikusten da, 20 plaza eskaintzeko bizitoki-bazterketa larrian diren pertsonentzat.

Aurrerapenak izan dira, orobat, komunitatea aktibatzeke ekimenen garapen esperimentalean eta kultura- eta kirol-ekimenen bidez gizarteratzea sustatzeko programa pilotuetan. Ildo horretatik, hainbat esperientzia azpimarratu daitezke, esaterako, Uribarriko Aurkigunea Bilbon; Bizkaian, Habitat programa garatzea eta 18-23 urte bitarteko gazteei arreta integrala emateke programa bat diseinatu eta abian jartzea, bazterketaren prebentziorako, aktibaziorako eta emantzipaziorako prozesuak sustatzeko; landa-ingurunean Gizarte-bazterketan dauden edo arriskua duten kolektiboen gizarteratze-zerbitzua Araban; Elkar Ekinez programa Oiartzualdean, Donostian eta Debagoienan; Portugaleteko Aproximate programa; Denbora Bankua eta Bakuva programak Bilbon; GaituzSport programa Santurtzin; Carrilanos de Fuego Eskualde Plana, jarduera fisikoak eskaintzeko Gasteizko Udalaren harrera-zentroetan, etab.

Bestalde, arlo horretan **hasi ez diren neurriak** aipatzerakoan, erakunde arteko lantalde tekniko baten sorrera nabarmendu behar da; 2019rako aurreikusten zen Zorroaren Dekretuaren eguneratzeke begira bazterketa-egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzuak eta zentroak definitzerakoan erantsi beharreke aldaketak aztertzeko eginkizuna zuen talde horrek. **Ez da hasi, ezta ere, Zorroaren Dekretuaren parte diren bazterketa-egoera arin, moderatu edo larrian dauden pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako betebeharrak material eta funtzionalak arautzeko lana, 2019-2020 aldirako aurreikusia zegoena. Aitzitik aurrerapenak izan dira kontzertu sozialaren araubidea eta lankidetzaren hitzarmenak eta esparru-akordioak arautzeko eta garatzeko lanetan,** eta Kontzertazio Sozialeko Dekretuaren edukien oinarri buruzko proposamena aurkeztu zaie foru-aldundiei, Eudeli eta Hirugarren Sektoreri. Une honetan, haien ikuspuntuak jasotzeko zain dago Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, dekretu horren Hasiera Aginduari ekiteke, eta beraz, ezin da gauzatutzat eman.

3.1.2. Jarraipen-adierazleak Gizarte Zerbitzuen esparruan.

Plana abiarazten den unean (2016/2017), EAEn honako egoera hau adierazten zuten Gizarte Zerbitzuen esparruari dagokion adierazleak:


- 2016an, gizarte-bazterketan dauden pertsonentzako **biztanleko eta urteko gastu publikoa** 21 eurokoa da, alde handirik ez dagoela lurraldeen artean (21,2 Araban; 19,7 Bizkaian eta 22,9 Gipuzkoan).
- **Osoko hedadura (plazak 10.000 biztanleko)** egoitza-zentroetan, gaueko harreran, eguneko harreran eta gizarte-jantokietan 2016an 22,7koa da (23,4 Araban; 23,8 Bizkaian eta 20,6 Gipuzkoan, non Irun baita ardura publikoko gizarte-jantokia duen udalerrri bakarra).

3.2. Osasuna

3.2.1. Balioespen orokorra

Gizarteratzeko Planak osasun-arloko berariazko 28 jarduketa aurreikusten ditu, sei xedetan bilduta. Horietatik, grafikoan ikusten denez, 10ek garapen-maila handia izan dute (% 36), 16k garapen-maila ertaina izan dute (% 57) eta bik izan dute garapen-maila txikia (% 7).

4. grafikoa. Osasunaren esparruan aurreikusitako jarduketaren egoera orokorra garapen-mailaren arabera



Iturria: Geuk egina, jasotako informazioetik abiatuta

Prebentzioari eta ohitura osasungarriak hartzeari dagokienez (Planaren 14. xedea), azpimarragarriak dira dagoeneko hasita dauden zenbait jarduketa, adibidez:

- Sexu-osasunerako informazioaren eta hezkuntzaren gaineko programak diseinatzea, genero-berdintasunean eta sexu-aniztasunaren errespetuan oinarrituta, bigarren hezkuntzako ikasleei begira, 16.000 ikasle baino gehiago ari direla parte hartzen.
- Haurdun dauden emakumeentzako arreta-protokolo berriak garatzea.

- Deialdia zabaltzea 2018an prebentzio eta arrisku nahiz kalteak murrizteko proiektuei dirulaguntzak emateko, 882.500 euroko aurrekontua esleituta.
- Hezkuntza Sailarekin batera UPRIGHT proiektu europarra garatzea, 12 eta 14 urte bitarteko gazteen osasun mentala hobetzeko helburua duena.
- Etxerik gabeko eta buruko nahasmendu larria duten pertsonentzako tratamendu asertibo komunitarioko (TAK) programa mantentzea, Osakidetzaren eta Bilboko Udalaren arteko lankidetzaz egina.
- Jokabide suizidaren prebentzioa arrisku handiko gaixoekin ikertzeko lana egitea telemedikuntzako teknikak erabiliz, suizidioaren Prebentzioko Estrategia lantzea, eta jokabide suiziden prebentziarako programa bat garatzea psikiatria-zerbitzurik gabeko OEletan, telefono bidetako jarraipen-zerbitzu bat ezarriz.
- Osasun Mentalaren eta Lehen Arretaren arteko koordinazioa hobetzeko prestakuntza-jarduerak ere antolatu dira.

Gizarte-bazterketan edo horren arriskuan diren pertsonen osasun zerbitzuetara iristeko duten aukerari buruz (Planaren 15. xedea), azpimarragarriak dira gauzatu diren berariazko bi neurri: GIB, STI, eta nahi gabeko haurdunaldia prebenitzeko programa eratzea hezkuntzaren arlorako, Hezkuntza Sailarekin batera, eta deialdia zabaltzea dirulaguntzak emateko populazio kalteberentzako programak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateei. Berariazko prestakuntza eman zaie Osasun Zentroetako Erabiltzailearen Arretaren Arloko langileei eta Osakidetzako Harrera eta fakturazio-zerbitzuetako langileei, ikastaroak emanez OTiren Tramitazio Unitateetako langileen eskutik, legezko egoitzarik ez duten erabiltzaileekiko prozedurei buruzko ezagutza zabaltzeko.

Arlo honetan, zalantzarik gabe, jarduketa nagusietako bat izan da **onartzea eta garatzea 247/2017 DEKRETUA, azaroaren 14koa, zeinaren bidez zabaltzen baitira Euskadiko osasun sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak**, eta hedatzen dira DBE jasotzen dituztenentzat eta 18.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten langabetuentzat². Era berezian da azpimarragarria, arlo horretan, **urtebetetik hiru hilabetera jaitsi dela Osasun Txartel Indibiduala lortzeko eskatzen den gutxieneko erroldatze-epea, era irregularrean bizi diren etorkinentzat**. Jarduketa hori, ordea, ezin da gauzatu eman, Konstituzio Auzitegiak indargabetu baitzuen Dekretua. Horrez gain, **egoera irregularrean dauden pertsona emigranteentzako osasunaren babes integralko Programa sortzeko instrukzioa** argitaratu zen 2017an, eta han ezabatu egiten da gutxieneko denborearen alde aurreko erroldatze-eskakizuna.

Arlo horri dagokionez, ezin da egiaztatu garatu direnik gizarte-kalteberatasun handieneko kolektiboak osasun-sistemara iristeko bidea erraztuko duten berariazko esku-hartzeak, Hirugarren Sektoreko entitateek zenbait kolektiboren bitartekari gisa izan dezaketean eginkizuna sustatuz.

Genero-arazoen prebentzioari eta heltzeko moduei dagokienez (Planaren 16. xedea) askotariko jarduketak gauzatu dira, azpimarragarriak direlarik, besteak beste, Emakunderekin batera EAEn genero-indarkeriaren aurrean osasun-arloko profesionalentzako Jarduketa Gida bat sortu izana, eta hobekuntzak sartu izana Historia Klinikoa eta Osabide Globaleko ospitaleko larrialdietan, genero-indarkeria ageri duten kasuak identifikatzeko eta kodifikatzeko. Horrez gain, 2019rako Osakidetzak lantalde bat sortuko du, genero-indarkeriazko egoeran dauden emakumeen seme-alaben egoeraren tratamendua aztertzeko.

² 2017ko deialdian, 84.274 eskari onartu ziren, haien bidez eman zirelarik 5.303.293,49 euro guztira, onartutako eskari bakoi-tzak batez beste jaso zuela 62,93 euro.

Euskadiko osasun-sisteman ekitatea sustatzeari eta osasun-arloko desberdinkeriak murrizteari dagokienez (17. xedea), **erabiltzaileei arreta beren etxean emateko loturazko erizaintzaren figura** mantendu du Osakidetzak, eta horren estandarra zehaztu da, ospitaletako hamar mila altako erizain bat ezarrita, alta pediatrikoak eta psikiatrikoak kanpo utzita. Azpimarragarria da, halaber, EAeko udalerririk askotan osasuna hobetzeko helburua duten elkarguneak eta parte-hartzeko foroak sortu izan direla, zerbitzu publikoen, erakundeen eta herritarren parte hartzearekin. **Baina ez da garatu eremu honetan osasun-ekitateko auditoriarik** (osasun-sisteman ekitate-ikuspegia bermatzeko Kontratu Programaren Adierazlea erabiltzen da, hala ere) eta osasun-zerbitzuetarako sarbidea pertsona guztientzat, zainketen jarraipena eta EAEn bizi diren pertsona guztien arreta osoaren kalitatea bermatzeko berariazko pausorik ez da eman.

Osasun-arloko desberdinkeriaren monitorizazioari dagokionez (18. xedea), **Osasunaren Behatokia abiatzeko lanean** aurreratu da, eta 2019an abiaraztea espero da. Gainera, ikerketa-proiektuen balioespenerako irizpideetan genero-ikuspegia sartu da, hainbat azterketa egin dira **2018ko Osasunaren Inkestak** emandako datuetatik abiatuta, eta 2018ko maiatzean argitaratu da Euskadiko Osasun, Ingurumen eta Sozioekonomiaren Atlas, eremu txikietan banatua, helburua dela desberdinkeria geografikoak monitorizatzea osasun, sozioekonomia eta ingurumen adierazleen arabera, genero-ikuspegia kontuan hartuz.

Azkenik, 19. xedea zen gai adiktiboen kontsumoa eta adikziozko portaerak ahal den neurrian murriztea, ekitatearen ikuspegitik, eta horri dagokionez, deialdiak egin dira laguntzak emateko Toki-Entitateei eta Elkartei, arrisku edo kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonen eta kolektiboen osasuna sustatzeko eta adikzioen prebentziorako programak aurrera eramateko. Laguntza horien testuinguruan -1,4 milioi euroko aurrekontua dute- laguntzak eskaintzen zaizkie bazterketa handiko egoeran eta kalte fisiko, psikiko nahiz sozial handia duten pertsonen arreta osoa sustatzen duten esku-hartze programei, horien bidez bermatzeko arrisku eta kalteen murrizketa, eta pertsona horien akonpainamendua eta oinarritzko beharren estaldura, tartean direla neurri penalak dituzten toxikomanoak, eta kontuan hartuta egoera horretan dauden emakumeenganako gizarte-arbuioa eta -isolamendua.

3.2.2. Osasunaren esparruko jarraipen-adierazleak.

Plana abiarazten den unean (2016/2017), EAEn honako egoera hau adierazten zuten osasunaren esparruari dagozkion adierazleak:

- **Atzemandako osasun txarraren prebalentzia** % 2,6koa izan zen gizonen artean % 4,1ekoa emakumeen artean, eta % 4,0koa eta % 7,9koa, hurrenez hurren, sozioekonomia eskasena duten gizon eta emakumeentzat.
- **Gainpisua edo obesitatea duten pertsonen tasa** % 53,8koa da gizonen kasuan eta % 38,7koa emakumeen kasuan.
- **Bizitzan inoiz bere buruaz beste egitea pentsatu duten pertsonen tasa** % 2,8koa da gizonen kasuan eta % 3,3koa emakumezkoen kasuan.
- **Eguneroko alkohol-kontsumoaren tasa** % 20,3koa da gizonentzat eta % 8,8 emakumeentzat, eta tasa txikiagoak agertzen dira sozioekonomia eskasena duten taldeen kasuan (% 16,4 eta % 7,6, hurrenez hurren). **Tabako-kontsumoari** dagokionez, tasa % 20,1ekoa da gizonen kasuan eta % 13,5ekoa emakumeen kasuan, eta sozioekonomiaren aldetik eskasena den taldeko gizonen kasuan % 30,4koa da.


- **Psikofarmakoek kontsumoak**, mediku errezetarekin edo gabe, 2017an, herritarren % 15,4ko tasa zuen (% 11,0 gizonak eta % 19,7 emakumeak).
- **Haurdunaldien borondatezko etenduren tasa**, 1.000 emakumeko 52,1ekoa da 20 eta 24 urte bitarteko emakume atzerritarren kasuan, eta 9,0koa 25 eta 29 urte bitarteko emakume espainiarren kasuan.
- **Genero-indarkeriak eragiten dituen emakume biktimen tasa**, 1.000 emakumeko 3,6 eta 4,4 artekoa da, erabiltzen den adierazlearen arabera.
- **GIB infekzioei dagokienez, kasu berrien kopurua**, 2017an, 133koa izan zen, eta HIES kasuak 26. **HIES kasuen diagnostiko berantiarren tasa** % 45,9koa zen.

3.3. Etxebizitza

3.3.1. Balioespen orokorra

Gizarteratzeko Planak berriazko 16 jarduketa aurreikusten ditu Etxebizitzaren esparruan, hiru xedetan bilduta. Horietatik, grafikoan ikusten denez, 14k garapen-maila ertaina izan dute (% 88), batek garapen-maila altua (% 6) eta beste batek garapen-maila txikia (% 6).

5. grafikoa. Etxebizitzaren esparruan aurreikusitako jarduketaren egoera orokorra



Iturria: Geuk egina, jasotako informaziotik abiatuta

20. xedearen funtsa zen etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko eskubidea bermatzea baliabide ekonomikorik ez duten pertsonei edo, kasuan-kasuan, alokairu-erregimeneko etxebizitza eskuratzeko aukera bermatuko dien prestazio ekonomikoa ematea. Horretarako sei jarduketa biltzen zituen, eta guztiak abiarazi dira, baina ez daiteke bakar bat ere burutu denik esan. Ildo horretatik, **aurrera egin da etxebizitzarako eskubide subjektiboaren Dekretua eratzeko lanetan, eta 2019an onartzea espero da**; era berean, Lanbideko Prestazio Osagarria Etxebizitza Sailera eskualdatzeko plan bat egin da, zeina 2019rako burutuko baita. **Sustapen publikoko etxebizitzaren esleipenerako orain erabiltzen den kupo-eta baremazio-sistemaren aldaketa ere aurrera bidean da**, eta lankidetzaren finantzarioko dekretuaren xedapen gehigarri gisa onartuko da 2019ko lehenengo lauhilekoan. Alokairu sozialeko etxebizitzaren parkea handitzeko ekimenei dagokienez, 2018an goren historikoa lortu da; izan ere, 5.325 etxebizitza lortu ditu Bizigune programak, eta 263 etxebizitza eskuratzeko lortu du ASAP programak. Bi programa horien aurrekontua 26 milioi eurokoa da. Etxebizitzaren arloko ekimen berritzaileenetako bat da gazteen emantzipaziorako **Gaztelagun programaren arautegiaren garapena**, 2019an indarra hartu baitu, 5,4 milioi euroren aurrekontua esleituta. Errentako zaharberritzeko programa pilotua, etxebizitzaren zaharberritzea, lanerako prestakuntza eta alokairuko etxebizitzarako sarbidea izatea bateratzen dituen, diseinatzen dagoen fasean dago oraindik.

Aurrerapausoak eman dira, Etxebizitzaren esparrutik, **bizitoki-bazterketa larriaren prebentziorako eta hari aurre egiteko EAEko estrategiaren garapenean** (21. xedea); sustapen publikoko alokairuko etxebizitzaren **etxegabeteen aurkako protokoloa** burutu da, eta protokolo berria diseinatu da, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiarekin, Eudelen eta Justizia eta Gizarte Zerbitzuetako Sailekin, etxegabeteen aurre egiteko bizitoki-alternatibak sortzeko merkatu librean³. Ildo horretatik, 2018tik **aurrerapausoak eman dira 846 zuzkidura-bizitokiaren sustapenean, eta 22 etxebizitzaren lagapenerako hitzarmenak** sinatu dira irabazi-asmorik gabeko hainbat entitaterekin. Ildo beretik, aurrera egin da genero-in-

³ "Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskadiko Udalen Elkar-tearen (EUDEL) arteko lankidetzaren hitzarmena, familia-etxebizitzatik botatzearen ondoriozko ahulezia-egoerak hautematea eta izera sozialeko neurriak hartzea ahalbidetzeko", iragan otsailaren 27an onartu zen.

darkeriaren biktima izan diren emakumeentzako eta etxegabetutako bizikidetz-unitateentzako etxebizitzaren salbuespenetzako esleipen zuzena egiteko irizpideen egokitzapenean ere, eta egiteko dago etxerik gabeko pertsonentzako esleipen-irizpideen egokitzapena.

Azkenik, 22. xedea pobrezia energetikoari aurre egitea izanik, **Gizarte Larrialdiko Laguntzen arautegia aldatu da (16/2017 Dekretua)**⁴, hitzarmena sinatu da Gurutze Gorriarekin, eta kontaktuak izan dira oinarritzko zerbitzuen hornitzaileekin eta udalekin, oinarritzko horniduren eteteak prebenitzeko. Gainera, **etxebizitzaren efizientzia energetikoa hobetzeko proiektuen garapena sustatuko duen berme-funtsaren oinarriak** diseinatu eta komunikatu dira, Gasteizko udalerriko hiri berroneratzeko programa-integralen markoan, 1,873 etxebizitzatara zabalduz, 3,3 milioi euroren aurrekontua esleitura Eusko Jaurlaritzaren eta Gasteizko Udalaren artean.

Azkenik, lurraldeko eskualderik ahulenetan **ez da aurrera eraman energia-kontsumo efizienteari buruzko prestakuntzako eta aholkularitzako programarik** sustatzeko eta garatzeko jarduketarik.

3.3.2. Jarraipen-adierazleak etxebizitzaren esparruan

Plana abiarazten den unean (2016/2017), EAEn honako egoera hau adierazten zuten etxebizitzaren esparruari dagozkion adierazleak:

- 2016an, **gaua kalean igarotzen zuten pertsonen tasa** 1.000 biztanleko 0,19koa zen, eta gizarte-zerbitzuen zentroetan ostatu hartzen zutenen tasa 0,792koa.
- 2017an, **etxebizitza eskuratu beharra zuten bizikidetz-unitateen portzentajea** zen etxe guztien % 6,3, aldaketa behar zuten bizikidetz-unitateak % 8,6 ziren, eta zaharberritu beharra zuten bizikidetz-unitateak % 8,6.
- 2017an, **etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) hartzen zuten pertsonen tasa** EAEn 12,7koa zen 1.000 biztanleko, tasarik txikiena Gipuzkoan dela (9,5) eta handiena Bizkaian (14,6).
- 2016an, EAEko bizitokien % 8,9k **arazoak dituzte etxean tenperatura egokia edukitzeko**, eta % 2,0 etxebizitzetan **hornidura etetea** izan dute, ordaintzeko ardurari aurre egin ezin izan diotelako.
- 2017an, 15.673 **Gizarte Larrialdiko Laguntza (GLL)** eman ziren, energiaren kostuari aurre egiteko; hau da, GLL guztien % 26,4 (376 euroko batez besteko zenbatekoa laguntza bakoitzeko).


3.4. Hezkuntza

⁴ Gai horri dagokionez, zehaztu behar da 16/2017 Dekretuak ez dakarrela Gizarte Larrialdiko Laguntzak energiarekin erlazionatutako gastuetarako esleitzeko aukerarik, izan ere, prestazio hori abian jarri zenetik bertatik aukera hori jaso eta erabili izan baita. 16/2007 Dekretuak zabalitzen duen aukera da GLLek estaltzen dituzten energia-gastuak propio bereizi ahal izatea gastuetako gainerako kontzeptuetatik, eta horrek zabalitzen du etxebizitzaren mantenu-gastuetatik energiari dagokion zatia zehaztasunez ezagutzeko aukera.

3.4.1. Balioespen orokorra

Gizarteratzeko Planak berariazko 14 jarduketa aurreikusten ditu Hezkuntzaren esparruan, lau xedetan bilduta. Horietatik, grafikoan ikusten denez, 10ek garapen-maila ertaina izan dute (% 71), eta 4 jarduketak garapen-maila handia izan dute (% 28).

6. grafikoa. Hezkuntzaren esparruan aurreikusitako jarduketaren egoera orokorra garapen-mailaren arabera



Iturria: Geuk egina, jasotako informaziotik abiatuta

23. xedea umeen arretako zerbitzu eskuragarriak eta kalitatekoak bermatzea zen, batez ere, hirietako eremu ahulenetan bizi diren edo/eta errenta eskasak dituzten familiei. Aurreikusitako bi neurriek heldu zaie: alde batetik, **2018an 100 plaza berri sortu ziren ingurunerik ahulenetan, Haurreskolak Partzuergoaren markoan**, eta bestetik, zerbitzua erabiltzen duten familiek ordaintzen dituzten kuoten arautegiaren aldaketa onartu da eta, horren ondorioz, **2019ko urtarrilaren 1etik aurrera Haurreskolen zerbitzua doakoa da urteko errenta 18.000 euro baino gutxiagokoa duten familientzat**. Neurri horren onuradun 500en bat familia izango dira, hau da, Haurreskolak erabiltzen dituzten familia guztien % 11.

Kalitate handiko eskola inklusibo eta bidezko bat eraikitzeko xedeari dagokionez, honako jarduerak gauzatu dira.

- Eskolaz kanpoko ordutegian laguntzeko Bidelaguna programa aurrera eramateko urteko deialdia.
- DBHko lehen eta bigarren ikasturteetako ikasleei laguntzeko Berariazko Hezkuntza Errefortzuko Programa.
- Bidaidetik gabeko adingabe atzerritarren (MENA) arretako programa, aurrera eramaten dena Otxarkoagako Heziketa Zentroari dirulaguntza emanez, 2018-19 ikasturterako aurrekontuan 200.000 euro gehiago esleitu zirela.

- Hamaika Esku programan parte hartzen duten zentro eta irakasleen kopurua handitzea. Programa horren helburua da kanpo-ebaluazio desberdinetan (PISA...) lortutako emaitzetan behiko mailan kokatuta ageri diren ikasleen portzentajea murriztea. Bertan parte hartzen dute 63 zentrok, 245 irakaslek eta 15,200 ikaslek.
- Onartu da 1/2018 Dekretua, urtarrilaren 9koa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena; ikasle etorkinak sareen artean eta eskola-eraginpeko ingurunearen barruko sare berean eskolaratzeko era inklusibo eta orekatua sustatzeko ekimenak arautzen ditu.
- Eskolako hizkuntza ezagutzen ez duten ikasle etorkinak dituzten zentroetako hizkuntza-erretzuko programa mantendu da, aurrekontuan 1.698.000 euroko partida esleituta zentro pribatuentzat.

Gizarte, osasun eta hezkuntza esparruen arteko lankidetzaren sustatzeari dagokionez —horren beharra duten ikasleei erantzun integrala emateko—, “*Hezkuntza-Osasun Mentala lankidetzarako marko orokorra. Kontsentsuzko dokumentua*” izeneko dokumentua egin da. Eguneko ospitalea inauguratu da Gas-teizen (Ume eta gazteen osasun mentala) eta Hezkuntza Sailarekin koordinatzeko mekanismoa ezarri da.

Kalteberatasun handieneko gazteek Lanbide Heziketara sartzeko eta ondoren lanean hasteko duten aukeraren sustapenari dagokionez (Planaren 25. xedea), **jarraitu beharreko ereduaren inguruko arautegia aztertzen ari da, Oinarritzko eta Gradu Ertaineko Lanbide Heziketako eredu bat diseinatu ahal izateko, helburua dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Gradua lortu ez duten 15-17 urte bitarteko gazteen beharrei erantzutea. Aurrera egin da, halaber, prestakuntza dualeko eredu bat finkatzeko lanbide-heziketaren eremuan: ikastetxe publikoen kasuan, berraztertu da enpresan egin beharreko Heziketaren kudeaketarako eta tutoretzarako baliabideen esleipena, eta ikastetxe pribatuen kasuan, dirulaguntzen urteko deialdi bat bada, Ikas-Ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualeko programak garatzeko.**

Beste hainbat jarduketara burutu dira esparru honetan, besteak beste, **laneratzeko trantsizioko beka-programa, kontratazio-konpromisoko prestakuntza-ekintzak** egiteko dirulaguntzen deialdia 2018rako, **prestakuntza, orientazio eta enpleguko ekintzak bateratzen dituzten proiektuak** diruz-laguntzeko deialdia, **kualifikazio baxua duten gazteentzat bakarrik egiten den prestakuntzaren deialdia, lanean hasteko edo lana mantentzeko arazoak dituzten pertsona langile nahiz langabetuentzako proiektu bereziak** garatzeko deialdia, **langabe dauden gazteen prestakuntzarako eta kontrataziorako dirulaguntzen deialdia, Gazte Enpleguko Programa Operatiboaren markoan, langabezia dauden gazteen kontratazio-konpromisoarekiko prestakuntzarako dirulaguntzen deialdia**, etab. Jarduketa hauetara guztietara bideratutako aurrekontua 27 milioi eurotik gorakoa izan da 2018an.

Bizitza osoan ikasteko jardueren arloan, 2018an bikoiztu zen **horretara bideratutako dirulaguntzen finantzaketa** (420.000 eurotik 930.000era); 50 proiektu lagundu ziren, eta **pertsona helduen hezkuntza-sarearen sustapenean aurrera egiten ari da**. Gaur 18.000 pertsona daude matrikulatuta, eta 600 irakasle baino gehiago. Ildo horretatik, Lanpostuen Zerrenda eguneratzen ari da gaurko eskaeraren arabera, eta Helduen Hezkuntzaren ezarpena arautzen duen dekretuaren egokitzapena 2019/2020 ikasturterako aurreikusita da.

3.4.2. Hezkuntzaren esparruko jarraipen-adierazleak

Plana hedatu zen unean (2016./2017. urteak) EAEn honako egoera hau islatzen zuten hezkuntzaren esparruko adierazleak:

- 2016/2017 ikasturtean, **0-3 urte bitarteko haurren eskolaratze-tasa** % 64koa da, alde oso txikiak daudela mutil (% 64,5) eta nesken artean (% 63,6).


- **Haurreskolak Partzuergoko plazak 0-3 urte bitarteko 100 hurreko** 11,2 dira 2017/2018 ikasturtean.
- **Helduen Hezkuntzan matrikulatutako pertsonen tasa**, 2016/17 ikasturtean, 1.000 biztanleko 7,7koa da (8,1 gizonen kasuan eta 7,3 emakumeen kasuan).
- **Maila sozioekonomiko baxuko ikasleek PISA azterketetan kompetentzia zientifikoa, irakurtzekoa eta matematikoan lortzen duten puntuazioa**, hurrenez hurren, 455 puntu, 464 puntu eta 458 puntukoa da. Maila sozioekonomiko altuko ikasleek puntuazio hori biderkatzen dute 1,1 aldiz, hiru kasuetan.
- **Ikasturte-errepikapenaren tasa** % 6,0-koa da DBHn eta 5,2koa Batxilergoan, tasa altuagoak daudela mutilen kasuan (% 7,3 eta % 6,2) nesken kasuan baino (% 4,5 eta % 4,3).
- **Eskola goizegi uzten dutenen tasa** % 7,0koa da Euskadin.
- Zentro arruntetan dauden ikasleen % 2,2k **hezkuntza behar bereziak** dituzte 2016/2017 ikasturtean, eta tasak kokatzen dira Oinarrizko Lanbide Heziketako % 7,6ko tasaren eta LHko goimailetakoko % 0,1eko tasaren artean.
- Ikasleen % 0,7k (mutilen kasuan % 1,1 eta nesken kasuan % 0,4) jasan dute **jazarpena edo tratu txarra eskolan**. Hala ere, eskolan tratu txarra jasan duten ikasleen portzentajea % 22,7koa da Lehen Hezkuntzan eta % 19,2 Bigarren Hezkuntzan.

4. 3. ardatza. Artikulazioa eta koordinazioa

4.1. Balioespen orokorra

Gizarteratzeko Planak berariazko 42 jarduketa aurreikusten ditu Artikulazioaren eta Koordinazioaren esparruan, zortzi xedetan bilduta. Horietatik, grafikoan ikusten denez, 29k garapen-maila ertaina izan dute (% 69), bi jarduketak izan dute garapen-maila altua (% 5) eta hamaikak izan dute garapen-maila txikia (% 26).

7. grafikoa. Artikulazioaren eta koordinazioaren ardatzean aurreikusitako jarduketaren egoera orokorra garapen-mailaren arabera



Iturria: Geuk egina, jasotako informaziotik abiatuta

Planaren 27. xedea da berariazko ekintza-planak garatzea eskualde eta udal ahulenetan eta sareko lana sustatzea lurraldeen mailan. Ildo horretatik, gauzatutako jarduketa nagusia izan da **Hiriak Birgaitzeko eta Berroneratzeko Udalerrien Programaren garapena**, dagoeneko gauzatzen hasia dena, horrek aukera zabaldu duelarik Donostia, Eibar, Bilbo, Lasarte eta Durangoko udalei zuzeneko laguntzak emateko hiri berroneratzeko ekimenetarako 2017-2020 aldirako, guztira 13,5 milioi euroren aurrekontua esleituta. Aipagarria da, bestalde, **Indartu programaren deialdia gauzatu dela 2018an, zortzi milioi euro esleituta**. Programa horren xedea lurraldeen diskriminazio positiboa egitea da, laguntzak bideratuz langabezia larriena jasaten duten inguruneetara (besteak beste, Ibaizabalen Ezkerraldea, Oiartzualdea, eta langabezia-tasa % 20tik gorakoa duten EAEko zenbait udalerrri). Gainera, **gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu berezien deialdian eskualde mailako zenbait proiektu jasotzen dira**, tokian tokiko sare-lana sustatzeko helburua dutenak (Enkartazioetako eskualdeko enplegua sustatzeko Plana; Beterri-Buruntza eskualdeko kualifikazio baxuko langabetuen gizarteratzeko eta laneratzeko ekimena; Otxarkoagan DBE hartzen duten langabetuen gaikuntzarako eskualdeko Proiektua, enplegua lortzeko dituzten aukerak zabaltzeko, etab.). Ildo bertsutik, **Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarteratzeko eta laneratzeko eskualdeko mahaiak eratu ditu, bertan parte hartzen dutela gizarte-erakundeek, udalek, tokiko garapen-agentziek eta Foru Aldundiko hainbat departamentuk**, Oiartzualdean, Debagoienan, Debabarrenan eta Buruntzaldea-Beterrin.

28. xedea da sistema arteko koordinaziorako tresnak eratzea auzo, udalerrri nahiz eskualde mailan, eta esku-hartze prozesuen dimentsio komunitarioa sustatzea; xede horri dagokionez honako jarduketa hauek gauzatu dira Aldundi nahiz Udalen aldetik:

- Arabaren kasuan, lurralde horretako kuadrilletan badira Gizarteratzeko Batzordeak. Batzorde hori foro parte-hartzaile bat da, gizarteratze-eginkizunetan parte hartzen duten eragile eta erakundeen arteko informazio- eta koordinazio-beharrak asetzeko asmoz sortutakoa.
- Gipuzkoan, berriz, eskualdeko gizarteratze-mahaiak sortu dira eskualde guztietan 2018an.
- Barakaldoko Udala hiru hilean behin elkartzen da gizarte-zerbitzuetako, osasuneko eta hiru garren sektoreko (Goiztiri, Caritas...) profesionalekin.

- Portugaleteko Udalak Gizarteratzeko Batzordea sustatu du herriko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluan; eta
- Gasteizen hiriko elkarteek zenbait lan-mahai osatu dituzte hainbeste gai landu ahal izateko, besteak beste, babesik gabeko umeak, bakardadea eta adineko pertsonak, eta bizi-bazterketa bizi duten pertsonak.
- Udalaren eskumeneko zerbitzua izan arren, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzatik, eta Boluntarioriazaren EAEko Kontseiluarekin lankidetzan, Bherria ekimena abiarazi da: Herritartasun berri batentzako Agora da, gizartearen parte-hartzea eta interakzio publiko-soziala sortzen laguntzeko udalei (www.bherria.eus)
- Udalerri askotan, gainera, gizarte-zerbitzuetako udal batzordeak eratuta daude.

Inguruneko hezkuntza-planak eratzeari buruz, lurraldean hezkuntza-ahultasuna erakusten duten adingabeekiko esku-hartzea artikulatzeko asmoz, zenbait ekimen zehatz antolatu dira Getxon eta Barakaldon, eta horrenbestez ekimena hasitzat hartu da, nahiz eta **ez daitekeen esan aldaketa kualitatibo handirik izan denik, tokiko gizarte-zerbitzuen, hezkuntza-zerbitzuen eta gainerako sare komunitarioaren arteko koordinazioari dagokionez.**

29. xedea esku-hartze indibidualeko prozesuetako eragilean koordinazioari dagokio. DBE hartu eta funtsean gizarte-arloko beharrezkoak dituzten pertsonen jarraipena eta haiekiko esku-hartzea hobetzeko asmoz, abian jarri da **lan-prozesu bat Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren aldetik, beste eragile batzuek ere parte-hartzen dutela, gizarte- eta enplegu-zerbitzuen koordinazioa hobetzeko** aukera emango duena, horretarako gizarte-bazterketako arriskuan dauden DBE-hartzaileen **balioespen-tresna komunak edota jarraipen-formula partekatua ezarriz**. Plana diseinatzen ari da eta 2019an jarriko da abian. Ildo beretik, **Lanbidek “Konponbideak elkarrekin diseinatuz” izeneko proiektu pilotua** abiarazi du; bertan parte hartzen dute Lanbideko bi bulegok, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiek, Donostia eta Pasaiaiko Udalek eta Lea-Artibaiko Gizarte Zerbitzuetako mankomunitateak, eta orobat bertan lanean hastekoak izan daitezkeen zenbait pertsonak, espedientea partekatzen dutenak Lanbide eta gizarte-zerbitzuen artean (DBEren hartzaileak izan daitezke edo ez). Proiektua Lanbideren Intxaurrondoko bulegoan hasi zen 2017an, eta Ondarroako bulegoan 2018ko uztailan abiatu zen. Une honetan, proiektuaren amaierako txostena osatzen ari da. Bestalde, **lantalde bat hasi da lanean, EUDELeK, hiru Aldundiek eta hiru hiriburuetako, Getxoko eta Irungo Udalek⁵ osatua, balioespen- eta diagnostiko-tresna komun berrikuspena egiteko**, haien erabilera eta, hala behar bada, hobetu eta egokitu beharrak aztertzeko.

Aurrerapenak izan dira, era berean, **udalen eta aldundien aldetik, Gizarte Zerbitzuen arloko lehen eta bigarren arretaren arteko lankidetzaren eta koordinazio-protokoloak (arreta partekatua eta deribazioa)** eta sistema arteko protokoloak eratzeko lanetan (gizarte-zerbitzuak, justizia, enplegu, etxebizitzaren eta beste hainbat sistema lotuz). Adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehen eta bigarren arretako zerbitzuen artean kasuen erreferentzia-formula partekatua esperimendatzeko proiektu pilotu bat abiarazi du.

Ez da aurrerapausorik izan, ordea, administrazio publikoen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen artean protokoloak edo akordioak sinatzeari dagokionez; erakunde pribatuek kasuaren erreferentzia- eta koordinazio-eginkizunetan parte hartzea izango litzateke helburua, eta barnean jaso beharko lirateke, erakunde horretako profesional bat erreferente izendatuko litzatekeen kasuan, elkarrekin trukatu beharreko informazioa, hori egiteko irizpide nahiz prozedurak eta administrazio publikoek egin beharreko jarraipena ere bai.

⁵ Lantalde horretako kide izan zen, halaber, Elkarte Elkarteko kide bat. Gonbidapena pertsonala izan zen, ez elkarte zehatz horretako kide izateagatik, berrikuspenaren objektu ziren tresnen erabilera zuen eskarmentu ezagunari esker baizik.

30. xedea da esku-hartzeko marko komuna sortzea gizarteratzearen arloan, horren bidez, pertsona ardatz deneko arreta, indibidualizazioa, aktibatze inklusiboa eta bizi-kalitatea printzipioen inguruan artikulatzeko profesionalen jardunbidea. Horri dagokionez, aipagarria da **Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak garatu duela Gizarte Zerbitzuetako jardunbide egokien banku bat, 2019an argitaratuko dena**. Aipagarria da, halaber, hainbat programa eratu direla gizarte-bazterketan dauden pertsonen edo/eta haiek ordezkatzeko dituzten erakundeek parte-hartze zuzena izan dezaten gizarteratze-programak diseinatzeke, zentroak kudeatzeko eta gizarte-politikak aplikatzeko lanetan. Ildo horretatik, adibide bat aipatzeagatik, Gasteizko Udalak gizarte-zerbitzu guztietan (oinarrikoa, haurrak, Gizarteratzea, Adinako Pertsonak) pertsona ardatz izango duen arreta-eredu baterako trantsizioa egiteko hainbat ekimen abiarazi ditu. Aldiz, zerbitzuen ezaugarriak eta esku-hartzeko prozedurak orientatuko dituen **gizarte-bazterketako arreta-eredu bat, gizarte-zerbitzuen arloan, diseinatzeke lanean aurrerapenik izan den baieztatzen duen informaziorik ez da jaso**.

31. xedea da arreta soziosanitarioko eredu eraginkor, koordinatu eta jasangarri bat garatzea, pertsonarengan zentratua, bere bizi-proiektuaren protagonista den heinean. Helburua hori dela, 2018an aurrerapausoak eman dira lantalde bat sortzeko, koordinazio soziosanitarioaren arloan gobernamentu-eredu bat eratu dezan; bi sistemen arteko batzorde misto baten bidez zehazten ari da, Arreta Soziosanitarioko EAEko Kontseiluaren ekimenez, eta Dekretu bidez ezarriko da. Arreta soziosanitarioaren garapenerako Dekretua, Planaren beste ekintzetako bat izanik, Gobernamentu Soziosanitarioaren Eredua arautuko duen Dekretua onartu ondoren gauzatuko denez, hasi gabeko ekintzat hartu da. **Aurrera egin da, halaber, baliabide soziosanitarioen katalogoak lantzeko eta finantzatzeko lanetan, bai, halaber, historia soziosanitarioa garatzeko plan funtzionala eratzeko prozesuan ere**; hala, kudeaketarako berariazko egitura bat sortzea aurreikusten da horretarako. Hirugarren Sektorereko erakundeek koordinazio soziosanitarioko organoetan parte hartzeko helburua, Erakunde Sanitario Integratuetako Batzorde Soziosanitarioetan parte hartuz, ordea, ez da aurreikusten garatuko denik.

32. xedea da EAEko gizarteratze-sistemaren ezagutzaren kudeaketa eta berrikuntza sustatzea eta haren gizarte-zilegitasuna bermatzea, eta aurrerapenak izan dira DBEren kudeaketaren inguruko zenbait datu argitaratzeari eta gaiaren inguruko berariazko zenbait ikerketa egin izanari dagokienez. Ildo horretatik, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak ISEAK fundazioari agindu dio **DBEren inguruko ikerketa** egiteko, eta **DBE hartzen duten pertsonen profil bat egingo da, 2018ko datuak erabiliz**. Gainera, **EHUK abian jarri du, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin lankidetzan, Gizarte Zerbitzuetako Kudeaketa eta Berrikuntzako Unibertsitateko Espezialista titulua eta Deustuko Unibertsitateak gizarteratzeari buruzko master bat diseinatu du, 2019/2020 ikasturtean ematen hasiko dena, EHUekin lankidetzan**. Bestalde, aurrera jarraitzen du **Zurumurruek** izeneko ekimenak, helburua duela politika inklusiboen gizarte-zilegitasuna aldeztuko duten arrazoibide eta mezu inklusiboak hedatzea. **Gaur egun gizarte-inklusioko politiken eremuan egiten diren berrikuntza, ikerketa eta balioespeneko jarduerak**, esku-hartze esperimentalak eta gaiaren inguruko berrikuntza artikulatu eta **finkatzeko aukera emango duen plataforma edo programa bat garatzeari dagokionez, berriz, ez da aurrerapenik izan**.

33. xedea da **lidergoa sustatzea Planaren aplikazioan eta gizarte-inklusioko EAEko sistema artikulatzea**, eta horri dagokionez ere, nolabait garrantzitsuak diren aurrerapenak izan dira. Esate baterako, **orain arte egon diren erakunde arteko eta sail arteko batzordeak Batzorde bakar batean batu dira**; gainera, **Lantalde Tekniko-Zuzentzaile bat eratu da, Planaren sustapena eta jarraipen tekniko egin ditzan**, eta txosten honen bidez, Planaren **jarraipen-lana** egiten ari da.

34. xedea da gizartearen aniztasunarekin koherentea izango den sistema bat eraikitzea, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duena. Hori garatzeko **gaur indarrean den Emakunderen Berdintasun Planetik eratorritako neurri generiko batzuk ezarri ziren, baina ez da berririk jaso horien inguruan**. Neurri horien helburuak ziren: a) inklusioaren arloan lan egiten ari diren eta beren programazioetan emakume eta gizonen arteko berdintasunerako helburuak dituzten gizarte-erakundeen kopurua handitzea; b) instituzioek eskaintzen dituzten erantzunak eta baliabideak (gizarte-zerbitzuak

eta inklusiokoak, ekonomikoak, sanitarioak, hezkuntzakoak, kulturalak, enpleguak, justiziakoak, segurtasunekoak eta etxebizitzakoak) pobrezia-egoeran edo horren arriskuan dauden emakumeen beharren arabera egokitzen direla zaintzea; eta c) gizarte-bazterketaren esparruan lan egiten duten erakundeetako erabaki- eta zuzendaritza-guneetan emakumeen presentzia eta eragina areagotzea.

Aurreratu egin da, ordea, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzat antolatutako baliabideen hobekuntzan. Beste jarduketak batzuen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- Arabako Foru Aldundiaren kasuan, genero-indarkeriaren biktime berriak arretako Unitatearen finkapena, bere gain hartuko dituela koordinazioa, kudeaketa eta arretako prozesuak, eta Arabako gizarte-erakunde mugimenduetarako koordinazioa, Lankidetzaren Sare bat osatzeko, indarkeria matxistaren biktime izan direnek eskura dituzten baliabideen inguruan herritarrei informazioa egoki helarazteko.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, Suspergintzarekin elkarlanean, indarkeriaren biktime izan diren emakumeak hartzeko programa bat garatu dute, eta erasotzailearekin bizi diren emakume biktimekin esku-hartzeko beste programa bat.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak babesgabetasun egoeran dauden emakumeentzako zentro espezializatu bat sortu du; 2018ko abendurako irekitzea aurreikusia zen, eta bazterketan dauden emakumeentzako laguntza eskainiko duen etxebizitza bat irekitzea ere aurreikusia dago. Gizarte Larrialdiko Foru Zerbitzuaren eta Ertzaintzaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat ere sinatu da.
- Sestaoko Udalak autokontzientzia eta laguntzarako tailerrak antolatu ditu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile eta Indarkeria matxistaren biktime diren emakumeentzat.
- Getxok badu etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta hobe emateko tokiko protokoloaren Jarraipen Batzorde bat.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baliabideen kalitatean, eskuragarritasunean eta hornikuntzan lurraldeen eta udalen arteko aldeak murrizteko, batik batik landa-eremuko udalerri dago kienez, hainbat jarduketa gauzatu dira. Zenbait adibide aipatzearen, instituzio arteko koordinazioaren hobekuntza, Araban Dekretu bidez arautuko den lurralde-batzorde baten bidez; Bizkaian indarkeriaren biktime izan diren emakumeentzako arreta psikologikoko zerbitzuaren deszentralizazioa; emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre Plana; eta Gipuzkoan, genero-indarkeria diren emakumeen arretako zentroyen berrantolaketa.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktime dirulaguntzen beharrei buruz, **Bizkaiko Foru Aldundiak aurreikusi du Gizarteratzeko Laguntza Berezia eskuratzeko aukera zabaltzea egoitza-arretatik ateratzen diren emakumeentzat.** BFAk aurreikusten du, halaber, **pertsonen salerosketa prebenitzeko eta hari aurre egiteko berriak garatzea.** BFaren aurreikuspena da, hain zuzen ere, 2019ko lehen hiruhilekorako, **pertsonen salerosketaren aurkako plan integrala** eratzea, eta horren **biktimeentzako bizitoki-plazak atontzea.**

Azkenik, gizarteko Hirugarren Sektorearen garapena sustatzeari dagokionez, hori baita **35. xedea, ez daiteke esan aurrerapen handirik izan denik.** Izan ere, **irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontzertazio sozialaren erregimena arautzeko bidean aurrera egin bada ere** (lehen esan den bezala, Kontzertazio Sozialaren Dekretuaren edukien oinarri buruzko proposamena aurkeztu zaie Aldundiei, Eudeli eta Hirugarren Sektoreari), **ez da informaziorik jaso xede honek jasotzen zituen beste bi ekintzen inguruan** (esku-hartze sozialaren arloko eredu mistoaren ezarpenaren jarraipena, sustapena eta balio-espena; eta Euskadiko Hirugarren Sektoreko erakundeetako arretarako eredu komunitarioa sendotzea eta bultzatzea), biak ere Euskadiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategiatik eratorriak.